

# Kale gorrian



## Kale-antzerkiko ikuskizuna

MAMA CREaren ekoizpena



## Jatorrizko ideia

Gure asmoa kaleko ikuskizun bat sortzea da. Formatu horrek, izan ere, poz handiak eman dizkigu gure bizitzan zehar, bai arlo profesionalan, bai jaietako edo jaialdietako ikusle izan garenean, eta, beraz, kalearekin bat egin nahi dugu, aspaldian egin ez dugun bezala. Ez dugu antzokietara eramán daitekeen antzerkia egin nahi.

Hurrengo erronka antzerkiaren **xedea** zehaztea izan da. Istorio bat kontatu nahi dugu. Gure egungo historiarekin lotutako istorio bat. Eta horren lekuko dira beren etxeetatik aterarazi eta kale gorrian geratu diren pertsonak. Horra hor bizitza bera bezain istorio bidegabe bat. Egungo

istorio bat, karga surrealistaz betea. Izan ere, bankuek, behea ez jotzeko diru publiko mordoak jaso ondoren, jendea beren etxeetatik ateratzen dute, onurak izaten jarraitzeko. Norbaitek ulertzen al du? Guk geuk ez gehiegi, eta, beraz, antzerkirako material bihurtu nahi dugu: gizarte-drama bat dugu aurrean.

Gure helburua zeresana sortzea izango da. Antzerkia amaitzen denean, jendeak ikusitakoaz hausnartu eta hitz egin dezala nahi dugu.

## Sinopsia

Aitona-amona bikote bat etxerik gabe geratzear dago. Berrogei urtez bizi izan dira etxe horretan, auzo horretan, eta, gaur, ezkondu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da.

Polizia beren balkoiaren azpian dago, gunea inguratuta dute eta epailearen agindua betetzeko prest daude. Auzokideak etxe inguruan batu dira, egoera horren lekuko izan eta, beharbada, kexatzeko.

Marinok ez du etxetik joateko asmorik, amaierara arte gogor eutsi nahi du. Horretarako, hainbat



estrategiaz baliatuko da. Begoñak, bestalde, nahiago du egoera horrekin lehenbailehen amaitu. Lotsa handia ematen dio bizitzen ari direnak. Baina ez ditu bere gauzak etxe barruan utzi nahi. Auskalo bankuek zertarako erabiliko dituzten... Azken finean, gauza horiek bere oroitzapenak dira, edo, hobeto esanda, bere bizitza.

Ikusiko dugu azkenean nola amaitzen den kontua. Justizia egingo al da?



## Ikuskizun-mota

*Kale gorrian* kale-antzerkia da. Bi aktore arduratuko dira antzezlan honen pertsonaiei bizia emateaz: poliziei, batetik, eta kale gorrira bota nahi dituzten aitona-amonei, bestetik.

Kale-antzerkiaren esentzia berreskuratu nahi dugu, gure ustez azken urteotan apurka-apurka desagertzen joan baita. Horretarako, hiri-arkitektura eszenografia bihurtu eta ikusleak dramaturgian inplikatuko ditugu. Hau da, antzoki batean edo kalea ez den beste inon gauzatu ezin

den antzerkia egin nahi dugu. Kanean egiten den antzerkitik ihes egin, eta kale-antzerkira itzuli.

Antzezleak gutxi izanik, produktua oso lehiakorra izango da, eta lehen solairu bateko balkoian antzeztuko dugunez (kalera jaitsi ahal izateko jarriko ditugun altuera batzuekin) ikusleak formatu ertain-handiko ikuskizun batean dagoela sentituko du.

# Espazio eszenikoaren tratamendua

Antzezlanak kalean bertan hasiko da. Polizia batzuek espazioa balizatuko dute, eta, hala, ikusleekin lehen harremana ezarriko da. Une horretan, lehen eszenatokia sortuko da: hustu beharreko etxearen azpiko kalea.

Bigarren oholta lehenengo solairuko balkoia izango da. Bertan, pertsonai nagusiak agertuko dira, beren auzokideei eskerrak ematera, eta etxean utzi nahi ez dituzten objektuak jaisten hasiko dira. Hala, elementu eta etxe-tresnak erabiliz, dorre antzeko bat eraikiko dugu, eta bertatik jaitsi ahalko gara kalera, dramaturgiak hala eskatzen duenean. Halaber, lehenetik hantxe zegoela ematen duen aldamia (guk aurretik jarria) erabiliko dugu sarbide berri bat sortu eta altuera lortzeko. Hartara, hiru maila horien artean (balkoia, objektuen dorrea eta aldamia) kuadro urbano-surrealista bat eraikiko dugu.

Kuadro horrek helburu praktikoa ere badu: altuera nahikoa sortzea, obra ondo ikus dadin eta ikuspegi-faltak ez dezan kontatu nahi dugun istorioa oztopatu.

Istoria osatzen duten eszenak lurraren gainetik dauden elementuetan islatuko ditugu, eta eszenarik interaktiboak, berriz, kalean, hurbiltzen diren ikusleekin harreman zuzenean.



Banco  
**Santander**



**QUEREMOS SER TU BANCO**

**QUEREMOS HIPOTECAR TU VIDA  
QUEREMOS ROBARTE LEGALMENTE**

**La Plataforma Stop Desahucios  
de Salamanca EXIGE**

**LA CONDONACIÓN TOTAL  
DE LA DEUDA DE NUESTRA  
COMPAÑERA QUEEN**

**DESAHUCIADA POR BANCO SANTANDER.  
SIN CASA Y CON 104.000 € DE DEUDA**



# EGIN NAHI DUGUN ANTZERIK A ETA EREMU SOZIALA

Azken urteotan, etxegabetzeen politikarekin sortutako gatazka izan da, zalantzarik gabe, hamarkada honetako gizarte-arazorik garrantzitsuenetakoa.

Ia astero etxegabetzeren baten lekuko izan gara, kasu batzuetan, gainera, inplikaturako pertsonak adinekoak izan dira, eta, ondorioz, gizartean liskar handia sortu da. Hori guztia dela eta, asko izan dira legearen babespean egindako bidegabekeria honekin enpatia sentitu dutenak. Egoera horren aurrean, despolitizatutako gizarte-plataformek etxegabetze horietako batzuk etetea lortu zuten, eta, hala, kasu zehatz bakoitza gizartearen garaietan bat bihurtu zen. Horrez gain, inolako zilegitasunik ez duten eta herritarregandik urrun dauden lege horiek agerian geratu ziren.

Azken bi urte hauetan, hala ere, legeak aldatzea lortu da. Esan liteke arazo hori neurri batean desblokeatu eta gizarte-drama lazgarri hau arindu egin dela.

Gizarte-plataformek beste lorpen bat ere izan dute: gatazka epaitegietatik atera eta etxebizitza bakoitzean kokatu dute, etxegabetze-aginduak betearazi behar izan diren une zehatzetan. Bada, gizartean lortutako balio hori da, hain zuzen ere, kontatu nahi dugun istorioaren eszenatokia. Hustuko diren etxe horien leiho eta balkoiak anfiteatro bihurtu nahi ditugu.

Anfiteatro hauetan, protagonistak eta antagonistak argi eta garbi identifikatuta egongo dira, eta ikusleek, Greziako tragedietan bezala, ordenaren indarrak arbuatuko dituzte, tragedia izugarri batean murgilduta dauden kideen alde egiteko.

Begoña eta Marinok berrogeita hamar urtetik gora daramatzate beraien etxean. Ezkongabe-garaiko aurrezkiei eta beren betiko aurrezki-kutxan urte luzez ordaindutako hipotekari esker erosi zuten etxea. Bertatik irten behar izan zuten goizeko ordu txikietan, bi aldiz, taxi bat hartu eta ziztu bizian probintziako ospitalera joateko, beren alabak erditzera. Harrezkero, denbora luzea igaro da. Beste garai batzuk ziren, eta asko aldatu da dena. Hainbeste aldatu da, ezen

beraien alabek, biak ere unibertsitatean ikasiek, beraien gurasoei eskatu behar izan baitzieten hipotekak sinatzean abala emateko. Baina, orain, Begoña eta Marinoren etxe azpian polizia dago, etxegabetze-agindu bat eskuan duela, hura betearazteko prest.

Gaur egungo gizarte-drama batean oinarritutako ikuskizun bat egin nahi dugu, ez haren alderdirik dramatikoa sakontzeko, baizik eta arazo hau berriz ere azaleratzeko eta gizartearen erakusleho bihurtzeko, benetako arazo bat dela ahaztu nahi ez duen komedia baten baitan.

Halaber, panfletuez harago doan kalitatezko gizarte-antzerkia aldarrikatu nahi dugu;

Kalea aldarrikatu nahi dugu, antzokietan egin ezin den antzerkia egiteko;

Ikusleekin benetan kontaktatzen duen antzerkia aldarrikatu nahi dugu;

Euskaraz sortutako kale-antzerkia aldarrikatu nahi dugu, eta ez programazioak asetzeko itzulitakoa.

Oinarrizkoa iruditzen zaigun gatazka batekin itzuli nahi dugu kalera, antzerkia egitera: hainbeste estimatzen ditugun galdera, barre eta gatazka horiek sorrarazi nahi ditugu ikusleen artean.

“KALE GORRIAN, Begoña eta Marino” abentura bat da, eta helburua aurrez aurreko antzerkiaren sustraietara itzultzea da, bi aktorek herri oso bat hankaz gora jar dezaten, bertako arkitektura eta, batez ere, bertakoen egoera emozionala aldatuta.

## HIZKUNTZA

Pieza honen bi formatu linguistiko egin nahi ditugu: bertsio bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz.

Obraren sorrera, lehen inprobisazioak eta abestiak euskaraz sortu dira, batez ere bi arrazoi direla-eta: lehenik eta behin, piezaren idiosinkrasia euskalduna izan dadin nahi dugu, eta, ez, ordea, gaztelaniazko bertsioaren itzulpena; bigarrenik, eta, ikuspegi funtzionalagoari erreparatuta, errazagoa izango zaigu istorioa gaztelaniara pasatzea, hasieratik euskaraz sortu bada.



## FITXA ARTISTIKOA

Aktoreak: Juanjo Otero eta Aritza Rodriguez.

Karakterizazioa: Gorka Agirre.

Eszenografia: Iñaki Ziarrusta.

Jantziak: Enriqueta Vega.

Ekoizpena: Nuria M. Crespo.

Banaketa: Naia Muñoz, ATX Banaketea.

Zuzendari-laguntzailea: Nuria M. Crespo.

Zuzendaritza: Pako Revueltas.







**Juanjo Oterok** Arte Dramatikoaren lizentziatura atera zuen 1999an, eta, gozotik, beti egon izanda da antzerkiaren alderdirik esperimentalenarekin eta hizkuntza garaikideenekin lotuta.

Bilboko La Chusma T konpainiaren sortzaileetako bat da. Haren Kartoibiraka ikuskizunak MAX saria irabazi zuen 2011ean.

Eszenako egile eta zuzendari honek bere ekoizpen-etxe propioa sortu zuen, Kultura Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza batekin.

Arte-zentroetako artista plastiko eta ikus-entzunezkoekin batera esperientzia eszenikoetan parte hartu du, eta antzerki-ekoizpen eta lirika-emanaldi handietan ere aritu izan da, besteak beste opera eta zarzueletan. Azken urteetan, Madrilgo sala mitiko baten zuzendaritza artistikoaz eta programazioaz arduratzen da.



**Aritza Rodriguezek** BAIn (Bizkaiko Antzerki Ikastegian) jaso zuen aktore-prestakuntza, eta 2002. urtean hasi zen profesionalki lanean, Kukubiltxo konpainiarekin. Aretoko nahiz kaleko hainbat antzezlan egin zituen taldearekin, besteak beste Aristides Vargasen "HARITZAREN AZALERA ZEHATZA", Estatuan nahiz Latinoamerikan izen handia lortu zuena.

Hortzmuga Teatroko aktorea da, eta hainbat ikuskizunetan parte hartzen du.

Gorakada antzerki-taldean hainbat lan egin ditu, tartean OGRO TXIKIA, Suzanne Lebeauren testua eta 2011ko dramaturgia onenaren saria FETENen; MUNDUARI ITZULIA, Chapito konpainiako zuzendaria den Jose Carlos Garziak zuzendua, 2013an zuzendaritza onenaren, espazio eszeniko onenaren, argiztapen onenaren eta Aritza Rodriguezi emandako GIZONEZKO INTERPRETAZIO ONENAREN SARIA FETENen; MOBY DICK, hori ere Jose Carlos Garziak zuzendua, 2016an zuzendaritza onenaren saria FETENen, eta 2016KO IKUSKIZUN ONENAREN finalista MAX SARIETAN.



**Pako Revueltas** Arte Dramatikoan diplomatua da eta hainbat interpretazio-teknikatan trebatu da: metodoa, keinuzko antzerki fisikoa, maskara neutroa edo clowna, kasu. Azken hogeiki urteetan antzerkian aktore- eta zuzendari-lanak egin ditu, eta hainbat film eta telesailetan ere ikusi ahal izan dugu.

Urteotan formatu oso ezberdineko ikuskizunak zuzendu ditu. Sorkuntzarik berrien artean nabarmentzekoak dira Calla y Come (La Cocina), Barbecho (Cia. Natxo Montero), Dead Letters (Mama Crea), Salto (Metrokoadroka), Vidas Pasadas (Bea Insa eta Leyre Berrocal) edo Una Casa de Muñecas (Arriaga Antzokia).

Partaide izan den ikuskizunek jaso dituzten sarien artean daude hurren ikuskizun onenaren MAX saria 2001 (La vuelta al mundo en 80 cajas), Ikuskizunik onena Tárrega, Villarreal, Valladolid eta Leioako jaialdietan 2003 (DSO), CICA saria 2009ko Berninalen (Ander), Huescako Nazioarteko Azokako antzerki-ikuskizun onenaren saria eta MAX sarietarako izendapena 2010ean (Calla y Come), edo Donostia Saria 2017an (Francoren Bilobari Gutuna).

